



LONDON WINE 2022

Informazio gehiago:

María Fernández de Romarategui

945 14 18 00

internacional@camaradealava.com

2022ko maiatzak 16-18

Tokia: Olympia Exhibition Centre, London

Maiztasuna: Urtero

Norentzak: Mahastizaintza- eta ardogintza-indus-
triako profesionalak

Izena emateko epea: 2021eko azaroaren 22a

Webgunea: www.londonwinefair.com

Parte hartzearen kostua:

Stand indibiduala: 2.100 € + % 21 BEZ

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Euskadiko Elikagaien Industria kanpoan sustatzeko jardueren artean euskal enpresen partaidetza taldekatua antolatu du **LONDON WINE 2022** azokan HAZIren bidez.

Egungo egoeraren ondorioz, deialdi honetan adierazitako datu guztiak behin betiko baieztatu gabe daude oraindik, COVID-19aren ondoriozko osasun-baldintzen eta azokaren antolatzaileen segurtasun-protokoloen mende baitago guztia.



AZOKAREN IZAERA

LONDON
WINE FAIR 2022

London Wine 2022

London Wine Fair funtsezko ekitaldia da britainiar merkatuan edarien banatzaileak, handizkariak eta inportatzaileak aurkitu eta ezagutzeko, baita off-trade kanaleko eta HORECA kanaleko eroslerik azpimarragarrienak aurkitu eta ezagutzeko ere.

Hitzordu garrantzitsua da **britainiar merkatuan jada sartuta dauden enprezentzat**.

Soilik publiko profesionalari, eta bereziki Erresuma Batukoari, zuzendutako ardoaren eta beste alkohol-dun edarien sektoreko urteko azoka honen 40. edizioa izango da hau.

Azoka honetako publiko profesional gehien HORECA kanalekoak dira (% 39); jarraian supermerkatuak daude (% 14); merkatari independenteak (% 11); banatzaileak eta inportatzaileak (% 11); komunikabideak (% 7) eta ardo-ekoizleak (% 4). Esanguratsua da herrialdeko mahastizaintza- eta ardogintza sektoreko prentsa espezializatuaren zati handi bat bertaratzen dela.

Euskadi Basque Country Stand-a

Eusko Jaurlaritzak LONDON WINE 2022 azokan 75 m² izango ditu **banakako standarekin** parte hartu nahi duten **Euskadiko mahastizaintza- eta ardogintza-industriako enprezentzat**.

Euskal ordezkariak gehieneko enpresa-kopuru batentzako gaitasuna izango du. Interesa duten enpresa gehiago egonez gero, **izena emateko hurrenkeraren arabera** egingo da hautaketa.

LONDON WINE AZOKAREN DATUAK

- Erakustokia: 14.350 m² (8.142 m² garbi)
- 2019ko erakusketariak: 35 herrialdeko 516 enpresa
- 2019ko bisitariak: 113.260 profesional, horien % 90 Erresuma Batukoak ziren; % 6 Europakoak, % 1 Eskandinaviakoak eta gainerako % 1 munduko gainerako herrialdeetakoak
- Azokaren webgunea: www.londonwinefair.com

ERRESUMA BATUKO MERKATUA

LONDON
WINE FAIR 2022

MERKATUA

Erresuma Batua da mahastizaintza- eta ardogintza-sektorean mundu-mailako erreferentziako merkatuetako bat. 2020an munduan ardorik gehien inportatu zuen bigarren herrialdea izan zen, nahiz balioari nahiz bolumenari dagokionez, eta azken ekitaldietako gorako joera mantendu zuen COVID baldintzak egon arren eta errealitate politiko berria izan arren.

Gaur egun Erresuma Batua herrialde kontsumitzailen rankinean bosgarren postuan dago bolumenaren arabera.

Euskadiko Ardoak

Erresuma Batuak 2020an 334.18258 euroko balioa zuten espainiar ardoak inportatu zituen eta horietatik 41.481.500 euro euskal ardoei zegozkien, hau da, Erresuma Batura egindako ardoen urteko esportazioen % 12,5 izan ziren.

2019 urtearekin alderatuz gero, espainiar ardoen balioa % 14 hazi zen eta Euskal Herriko ardoena % 16.

Bestalde, bolumenari dagokionez, 2020an Erresuma Batuak 173.676.240 litro ardo espainiar inportatu zuen eta horietatik 10.734.820 litro Euskal Herrikoak ziren. Beraz, 2020an Erresuma Batura esportatu diren espainiar ardoen bolumenaren % 7 Euskal Herriko ardoak izan dira.

2019 urtearekin alderatuz gero, espainiar ardoen bolumena % 32,4 hazi zen eta Euskal Herriko ardoena % 18.

Erresuma Batua da euskal ardoen esportazioen helmuga nagusia eta bigarren tokian dago estatu osoa kontuan hartuz gero.

• Rioja jatorri-deitura kalifikatua

Merkatu honetan iaz Rioja JDK ardoen salmenta % 12 hazi zen balioan, 127 milioi eurotara iritsi arte, eta % 19ko hazkundera izan zuen bolumenean, 36,3 milioi litrorara iritsi baitzen.

Erresuma Batua da, oraindik ere, jatorri-deitura horren merkatu nagusia, alde handiarekin.

• Arabako, Bizkaiko eta Getariako Txakolinak

Hiru jatorri-deituretan sartutako txakolinei dagokionez, 2020an Erresuma Batura egindako esportazioen balioa 1.584.000 eurokoa izan zen, aurreko urtearekin alderatuz gero atzera egin zen, merkatu horretara egindako esportaziorik gehien aurreko urtean izan baitzen, 2.203.000 euro hain zuzen ere.

Azpimarratu behar da, ordea, 2020ko zifra aurreko urtekoa baino txikiagoa izan arren, hiru ekitaldi lehenagokoarekin alderatuz gero % 100eko hazkundera dagoela.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

LONDON
WINE FAIR 2022

Ekitaldi honetan parte har dezakete soilik egoitza soziala Euskal Herrian duten enpresa ekoizleek; Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Elikagaien Industriako Erregistroan izena emanda badaude.

Azoka baino lehen

- Enpresako ordezkari bat bertaratzeko konpromisoa hartzen dute enpresek eta kuota ordaindu behar dute; ezin izango dute baja eman Euskal Herriko pabilioian sartu direla jakinarazi ondoren. Ezinbesteko arrazoiak egonez gero, Eusko Jaurlaritzak beretzat gordetzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eskubidea eta, inoiz, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzekoa.
- Azoka hasi bezperan nahitaezkoa izango da enpresak bertan egotea adierazitako orduan, merkantzia jaso eta standetako dekorazioari azken ukituak emateko, azoka inauguratu baino lehenago.

Azokan zehar

- Erakusgai egongo diren produktuak **erabat Euskal Herrian egindakoak** izan beharko dira. Ezingo dira inondik eta inora ere aurkeztu beste autonomia-erkidego batzuetako produktuak.
- Azokak irauten duen egun guztietan standean egon beharko da irekita dagoen ordutegian.

Enpresaren batek azokaren ordutegi ofizialean justifikatutako arrazoi berezirik gabe standa artatu gabe utziko balu, azokaren hurrengo edizioan parte hartzeko lehentasunezko eskubide guztiak galduko ditu (izena emateko hurrenkera, etab.). Izena eman eta ordainketak egiteko epean egindako gainerako eskari guztiak artatu ondoren tokiren bat geratuko balitz baino ez da enpresa horren eskaria artatuko.

Era berean, enpresa batek edo gehiagok standa utzi eta Eusko Jaurlaritzak, taldekako presentziaren antolatzaile legez, antolatzaileen zigor ekonomikoren bat jasoko balu, arau-haustea eragin duen enpresari edo enpresei jasanaraziko zaie berehala.

- Azoka amaitutakoan enpresa bakoitzak bere produktuak behar bezala jaso beharko ditu eta standeko elementuak eman zitzaizkion baldintza berdinetan entregatu beharko ditu.

Azokaren ondoren

- **Ebaluazio-inkesta** egin beharko dute; inkesta bete eta entregatu egin beharko dute antolakuntzaren jarraibideen arabera.

PARTE HARTZEKO EREDUA ETA KOSTUA

LONDON
WINE FAIR 2022

Parte-hartzeko eredua

Eusko Jaurlaritzaren standak kalitatezko ardoak (jatorri-deitura dutenak), jatorri-deitura duen txakolina eta bestelako edari alkoholodunak ekoizten dituzten Euskadiko elikadura-industriako enpresei egingo dio harrera.

BANAKAKO stand eredua

Parte-hartzearen kostua

London Wine 2022 azokan parte hartzeak kostu hau izango du:

Banakako stand-a:

2.180 € + % 21 BEZ = 2.637,8 €



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

LONDON
WINE FAIR 2022

Izena emateko epea: 2021eko azaroaren 22a

Plaza-kopurua mugatua denez, izena emateko inprimakia bete eta ordainagiria ahalik eta lasterren bidaltzea gomendatze dugu María Fdez. de Romarateguiarentzat dela adierazita helbide honetara:

internacional@camaradealava.com

Enpresa parte-hartzaileak hautatzeko, izena emateko dokumentuen **harrera-ordena errespetatuko da**.

IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE

Formularioan eskatutako informazioari dagokionez, azokako katalogo ofizialerako eta gainerako sustapen-elementuetarako datuak transkribatuko dira.

ORDAINAGIRIA BIDALTZEA

Kontu-zenbakia: ES49-3035-0179-61-1791069900 Laboral Kutxakoa, HAZIren izenean.

Kontzeptua: **"Enpresaren izena + LONDON WINE 2022"**.

HAZIren Finantza Sailak faktura bat bidaliko du dagokion zenbatekoarekin, parte-hartzea baieztatu ondoren, izena emateko epea amaitzean.

IZENA EMATEKO EPEA: 2021eko azaroaren 22a

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

LONDON
WINE FAIR 2022

GARRANTZITZUA:

Izen-ematea formalki gauzatzeko, enpresek **IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE ETA ORDAINAGIRIA BIDALI** beharko dute, eta izena emateko epe gisa idatzi beharko dute ordainketa egin zuten eguna.

Eskatutako inprimakia betetzeak **EZ DAKAR** enpresak Eusko Jaurlaritzaren pabiloian parte hartzea; izan ere, gutxieneko enpresa-kopuru bat behar da horretarako. Eusko Jaurlaritzak izen-ematearen onarpena jakinaraziko du.

ENPRESA BATEK UKO EGITEN BADIO PARTE HARTZEARI FAKTURA JASO ONDOREN, HAU DA, EUSKADIKO STANDEAN SARTU DELA JAKINARAZI ONDOREN, ORDAINDUTAKO KOPURU GUZTIA GALDUKO DU. Soilik ezinbesteko kasuetan baloratuko dira enpresak aurkeztutako arrazoiak, eta, hala badagokio, ordaindutako zenbatekoaren ehuneko bat itzuliko da.

Soilik kasu hauetan aurreikusiko da enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzea:

- Enpresek eskatutako espazioak azokaren antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako espazioa gainditzen badu, hautatuak izan ez diren enpresek izena eman aurreko kuota jasotzeko eskubidea izango dute.
- Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea baliogabetzen bada ezinbesteko arrazoiengatik edo parte-hartzaileen kopurua nahikoa ez izateagatik, enpresei ordaindu duten zenbatekoaren % 100 itzuliko zaie.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

LONDON
WINE FAIR 2022

GUNEAREN KONTRATAZIOA

GUNEAREN DEKORAZIOA

MERKANTZIEN GARRAIOA

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, HAZIren bitartez, zerbitzu hauek emango ditu:

Gunearen kontratazioa

Promoziarako gune bat izango da eta enpresa bakoitzarentzat 9 m² inguruko banakako stand pertsonalizatueta banatuta egongo da.

Gunearen Dekorazioa

Standeko dekorazioa eta oinarrizko altzariak uniformeak izango dira Euskal Herriko standeko erakusketari guztientzat eta elementu hauek izango dituzte:

1 mahai, 4 aulki, erakusmahaia, enpresa erakuslearen errotulua, konexio elektrikoa eta biltegia hozkailuarekin. Denek erabiltzeko eremuan egongo da harraska.

Oharra: Harraskarik ez dago banakako stand bakoitzean, baizik eta denek erabiltzeko eremu batean. Standetako oinarrizko altzarietan, elementu elektrikoetan edo behar elektrikoetan aldaketak egin behar izanez gero, eta aldaketa horien ondorioz elementu horiek gehitu edo aldatu behar izanez gero, erakusketari bakoitzak zuzenean kontratatuko ditu eta erakusketari bakoitzaren gain izango da gastua; dekoratzaileak zuzenean fakturatuko du gastu hori.

Merkantzien garraioa

Eusko Jaurlaritzak merkantzien bidalketa bateratua antolatuko du garraiolariak adierazitako puntu jakin batetik, merkantziak standetan entregatu arte.

Merkantzien bidalketaren kostua garraiolariak fakturatuko du, eta enpresa erakusketariaren gain izango da erabat.

Hala dagokionean, garraio-enpresa esleipendunaren datuak emango dira.

Eusko Jaurlaritzak ez du bere gain hartuko taldeko garraio honetatik kanpo bidalitako merkantzien harrera eta segurtasunaren gaineko erantzukizuna.

Enpresek parte hartu beharko dute merkantzien harreran, adierazitako orduan, baita standetako apainketa-lanak amaitzeko ere, inaugurazioaren aurretik eta beharrezko aurrerapenarekin. Adierazitako orduan merkantziak jasotzera joaten ez diren enpresek zigorra jaso ahal izango dute. Enpresak han egon beharko dira merkantzien harreran adierazitako orduan eta standetako dekorazioari azken ukituak emateko ere bai, inaugurazioaren aurretik. Merkantzia jasotzera adierazitako orduan ez datozen enpresak zigortu egin daitezke.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

**LONDON
WINE FAIR 2022**

KOPEN ETA LISTUONTZIEN ZERBITZUA
AZOKAKO KATALOGO OFIZIALEAN SARTZEA
STANDAREN MANTENTZE-LANAK

Kopen eta listuontzien zerbitzua

Zerbitzu hau London Wine azokaren izena emateko kuotan sartzen da.

Azokako katalogo ofizialean sartzea

Eusko Jaurlaritzak beharrezko izapide guztiak egingo ditu Azokan parte hartu behar duten enpresa guztiak Azokako antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean agertu daitezen, ekitaldiko erakusketari guztiak agertzen baitira katalogo horretan (izena emateko formularioan jasotako datuak agertuko dira).

Standaren mantentze-lanak (garbiketa, elektrizitatea, ura, etab.)

Eusko Jaurlaritza arduratuko da garbiketa-zerbitzuaz, elektrizitateaz, uraz eta, oro har, standaren mantentze egokiaz.

Hala ere, enpresa bakoitza arduratuko da standaren garbiketa-baldintza onenetan mantentzeaz.